

Bisfosfonatoak osteoporosian:

ZENBAT IRAUTEN DU TRATAMENDUAK?

Osteoporosia tratatzeko eta hezurak hausteko arriskua murrizteko (aldaka, eskumuturra, bizkarrezurra...) bisfosfonato bat errezetatu zizuten: alendronatoa, risedronatoa, azido ibandronikoa edo azido zoledronikoa.

Urte batzuetan zehar baina denbora-tarte mugatu batean hartu beharreko medikamentuak dira. Hezurrean metatzen dira eta efektu babeslea eragiten dute. Babes-efektu horrek tratamendua kendu eta gero ere irauten du. Medikamentu hauek denbora luzez erabiltzeak arrisku batzuk eragin ditzake: femurraren haustura atipikoak eta masailezurreko nekrosia.

Tratamendua aztertzea beharrezkoa da

Zure medikuak, aldian-aldian, tratamenduarekin jarraitzeko beharra dagoen ala ez aztertuko du, zure hezurren egoeraren arabera eta hezurak hausteko arriskua handitzen duten faktoreak kontuan hartuta: erortzeko arriskua, adina, sexua, aurretik izandako hausturak edo hausturak izan dituzten senideak, tabakoa, alkohola, Gorputz Masa Indize (GMI) baxua, beste tratamendu batzuk (aho bidezko kortikoiderekin adibidez) edo beste gaixotasun batzuk.

Datu horiek guztiak kontuan hartuta, zure medikuak **arriskuen eta onuren balantzea** egingo du eta zure iritzia jakinda, ondorengo erabakiko duzue.

Tratamendu berdinarekin jarraitzea



Denbora tarte baterako kentzea (opor terapeutikoak)



Tratamendua betiko kentzea



Beste medikamentu batekin ordezkatzea



→ **Eta gogoratu: Osteoporosiaren prebentzioan eta tratamenduan dena ez da botika.**

Bibliografia:

Menopausia osteko osteoporosia: ezinbestekoa da adostasuna. INFAC. 2015;23(4):27-32

Denosumab y bisfosfonatos. Duración y seguridad. El ojo de Markov. 2017(63):1-4.

Egileak: Iñigo Aizpurua, Rosa Añel, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, M^o José López, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Karmele Pérez, Isabel Porras eta Juan Uriarte

cevime
centro vasco de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Hemen bildu den informazioaren helburu bakarra, hain zuzen ere, informazioa ematea da, eta ez zure osasun-profesionalak eman dizkizun gomendioak ordezkatzea. Erabat debekaturik dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea.

